# Esploratzaileak XIX. mendean

# LE TOUR DU MONDE

## Exploradores en el siglo XIX




MUSEO·ZUMALAKARREGI·MUSEOA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

CASA - IRIARTE ERDIKOA - ETXEA
20216 ORMAIZTEGI. GIPUZKOA
mzumalakarregi@kultura.gipuzkoa.net
T: +34 943 889 900. F: +34 943 880 138
www.gipuzkoa.net/kultura

# ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

## Esploratzaileak XIX. mendean

## LE TOUR DU MONDE

## Exploradores en el siglo XIX

"Txikia nintzenean mapek liluratuta ninduten. Orduak eta orduak ematen nituen Hegoamerikari, edo Afrikari, edo Australiari begira, eta esplorazioaren ederrean galtzen nintzen. Garai hartan zuriune asko zegoen lurraren azalean, eta haietako bati bereziki kilikagarria neritzonean (eta zeini ez neritzon!), behatza haren gainean jarri eta neure buruari esaten nion: "handitzen naizenean haraxe joango naiz".

"Cuando era pequeño tenía pasión por los mapas. Me pasaba horas mirando Suramérica, o África, o Australia, y me perdía en todo el esplendor de la exploración. En aquellos tiempos había muchos espacios en blanco en la tierra, y cuando veía uno que parecía particularmente tentador en el mapa (y cuál no lo parece) ponía mi dedo sobre él y decía: "cuando sea mayor iré allí".

**Joseph CONRAD**: Ilunbeen bihotzean
El corazón de las tinieblas, 1899.

Erakusketa hau gauzatzeko lanetan laguntza eskaini digutelako, honako instituzio eta pertsona hauei gure esker ona adierazi nahi diegu:

Queremos agradecer a las siguientes personas e instituciones su ayuda a la hora de realizar esta exposición:

- Bidebarrieta Udal Liburutegia. Bilbo / Biblioteca Municipal Bidebarrieta. Bilbao
- Fondation Abbadia. Academie des Sciences. Paris.
- Frédéric Soulou.
- Iradier Fundazioa. Gasteiz / Fundación Iradier. Vitoria
- Archivo Municipal de Vitoria. / Gasteizko Udal Artxiboa.
- Pilar Aróstegui.
- Murga familia. Markina (Bizkaia) / Familia Murga. Markina (Bizkaia)
- Federico Verástegui.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

Diputatu Nagusia
Diputado General
Roman Sudupe

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kiroletako Foru Diputatua
Diputado Foral de Cultura, Euskara, Juventud y Deportes
Luis Bandrés Unanue

Kultura Zuzendari Nagusia
Directora General de Cultura
Mª Jesus Aranburu

© Zumalakarregi Museoaren argitalpena. 2002
Publicación del Museo Zumalakarregi. 2002

Erakusketa eta katalogoaren ideia eta burutzapena:
Idea y realización de la exposición y el catálogo:
K6 Gestión Cultural S.L.

Moldiztegia/Imprenta: Artes Gráficas Lorea S.L.

I.S.B.N: 84 - 606 - 2783 - 7
L.G / D.L: SS-1177/02

Bere museoetan gordeta dauden mota ezberdinetako fondoak ezagutzera ematea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuaren helburuetako bat. Kasu honetan, Ormaiztegin kokatutako Zumalakarregi Museoaren fondoen parte diren dokumentuak biltzen dituen aldi baterako erakusketa honek, *Le Tour du Monde* titulupean XIX. mendeko bidaiak eta bidaiariak gertuagotik ezagutzeko aukera ematen digu.

Jakina da Zumalakarregi Museoa bereziki zentratzen dela XIX. mendeko historia eta dokumentuetan. *Le Tour du Monde* garai honetan kaleratu zen aldizkari baten titulua izaki, bertako irudiekin osatu da nagusiki erakusketa hau. Baina aldi berean, ez dira ahaztu nahi izan munduaren ikuspegia aldatzeko bere ekarria egin zuten hiru euskaldunen figura, Abbadia, Murga eta Iradierrena, hain zuzen.

Uno de los objetivos del Departamento de Cultura, Euskara, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa es dar a conocer los diversos fondos que se encuentran en sus museos. En este caso, la exposición temporal organizada por el Museo Zumalakarregi de Ormaiztegi, que muestra una parte de sus fondos bajo el título *Le Tour du Monde*, nos ofrece la oportunidad de conocer un poco más de cerca los viajes y viajeros del siglo XIX.

Es sabido que el Museo Zumalakarregi se centra especialmente en la Historia y documentos del siglo XIX. *Le Tour du Monde* es el título de una revista publicada en esta época y gran parte de las imágenes de esta exposición proceden de ella. Pero al mismo tiempo, no se ha querido olvidar la figura de tres vascos que hicieron también su aportación al cambio de percepción sobre el mundo: Abbadie, Murga e Iradier.

Aldi baterako erakusketen programaren barne dauden gainontzeko erakusketekin bezala, *Le Tour du Monde*-rekin ere, bai Museoa eta baita bere ondarea euskaldunei gehiago hurbiltzeko helburua bilatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak.

Al igual que sucede con las restantes exposiciones temporales, el Departamento de Cultura, Euskara, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa quiere con *Le Tour du Monde* aproximar a los vascos tanto el museo como sus excelentes fondos.

**Luis Bandrés Unanue**
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kiroletako Foru Diputatua
Diputado Foral de Cultura, Euskera, Juventud y Deportes

# AURKIBIDEA / ÍNDICE


Hitzaurrea / Prólogo ____ 10

Edouard CHARTON: "Preface". Le Tour du Monde, 1860. ____ 12

Revue Géographique, 1866. ____ 18

Afrika / África
- Dr. David LIVINGSTON: L'année géographique, 1862.
- Captain John Hanning SPEKE: Revue Géographique, 1863.
- Revue Géographique, 1863 ____ 24

Hegoamerika / Sudamérica
- A. GUINARD: "Trois ans de captivité chez les patagons, 1856". Le Tour du Monde, 1861. ____ 30

Iparramerika / Norteamérica
- G. CATLIN: "Excursions parmi les tribus indiennes des bassins de la Colombia et du Haut-Missouri, 1855". Le Tour du Monde, 1869. ____ 36

Asia / Asia
- Louis ROUSSELET: "L'Inde des Rajahs, 1864-1868". Le Tour du Monde, 1871. ____ 42
- Francis GARNIER. "Voyage d'exploration en Indo-Chine, 1866-1868". Le Tour du Monde, 1871. ____ 43

Artikoa / Ártico
- J.J. HAYES: "Voyage a la mer libre du Pôle Arctique, 1860-1862". Le Tour du Monde, 1868. ____ 50

Europa / Europa
- Charles DAVILLIER: "Voyage en Espagne". Le Tour du Monde, 1862. ____ 56

Ozeania / Oceanía
- Jules GARNIER: "Voyage a la Nouvelle-Calédonie, 1863-1866", Le Tour du Monde, 1868. ____ 62

Munduari bira eta Jules Verne / La vuelta al mundo y Julio Verne
- Revue Géographique, 1869. ____ 66

Speke & Grant: bidaia baten ibilbide grafikoa / Itinerario gráfico de un viaje ____ 70

Euskal esploratzaileak / Exploradores vascos
- Antoine d'ABBADIE: Lettre de septembre de 1844. ____ 82
- José María MURGA: Recuerdos marroquíes del Moro Vizcaíno, 1868. ____ 86
- Manuel IRADIER: Fragmentos de un diario, 1875 ____ 90

Bibliografia / Bibliografía ____ 95

## Esplorazio bidaiak

XIX. mende erdi aldera mapek oraindik eremu asko zuri-zuri zituzten. Munduan zehar, beti ere europarren ikuspegitik, ezagutzen ez ziren lurraldeak ugariak ziren. Beraz, esplorazio bidaien garaian murgiltzeko aukera eskainiko digu erakusketa honek, mapak osatzen ari ziren garaian, alegia. Urte horietan, espedizioen ugaltzearekin batera, europarren jakin mina asetzeko zenbait aldizkari sortu ziren, hauetan lehena, erakusketa honetarako iturri nagusia izango den *Le Tour du Monde*, Parisen argitaratzen zena. Aldizkari honek eskaintzen dituen irudien kalitatea eta xarma ezohikoak dira egun, garaiko irudigile eta grabatzaile onenak biltzen baititu, besteak beste, Karl Girardet, Victor Adam eta Gustave Doré. Bestalde, testuek munduko paisaia eta ohitura desberdinekiko europarren harridura erakusten digute. Lekuak ez dira existitzen europar baten oinak zapaldu arte. Apenas onartzen da zibilizaziorik "kontinente zaharrean" jaiotakoetatik kanpo. Arrazakeria darie testu hauetako askori, baina baita ausardia, abentura gosea eta egoerarik larrienetan bizirauteko grina ere.

## Los Viajes de Exploración

A mediados del siglo XIX los mapas todavía tenían muchos espacios en blanco. Eran muchas las regiones del mundo totalmente desconocidas... para los europeos. Esta exposición nos ofrece la oportunidad de adentrarnos en la época de los viajes de exploración que iban rellenando los huecos de los mapas. Al mismo tiempo nacieron revistas que pretendían satisfacer la curiosidad de los europeos. La primera y más importante fue *Le Tour du Monde*, publicada en París. De ella proviene la mayoría de las imágenes de esta exposición, imágenes de gran calidad y raro encanto, realizadas por los mejores ilustradores y grabadores del momento, como son Karl Girardet, Victor Adam o Gustave Doré. Desde nuestra actual perspectiva, sus textos nos descubren no sólo los paisajes y costumbres de todo el mundo, sino el asombro que les producían a los europeos. Ningún sitio existía hasta haberlo hollado un pie europeo. Apenas se aceptaba civilización que no proviniera del "Viejo Continente". Muchos relatos y descripciones rezuman racismo, pero también derrochan valor, sed de aventuras y pasión por la vida en los

Euskal Herrian ere izan genituen bidaiari ausartak garai honetan. Hauen presentzia ere nabarmentzen dugu hiru pertsonaiaren bitartez: Abbadia, Murga eta Iradier. Beraienak dira erakusketan aurkitzen diren objektu bakarrak eta, kontserbatzen direnen artetik, esanguratsuenak hautatzen saiatu gara.

Erakusketa honetan bi gauza nabarmentzen dira. Batetik ezagutzen ari ziren paisaien eta giza-taldeen arroztasuna, bestetik XIX. mendeko europarrek munduari buruz jasotzen zuten ikuspegia. Egun, telebistako erreportaien bidez gertutik ezagutu bide ditugun lurralde eta gizakiak, mende t'erdi lehenago sortzen zuten harridura eta zirrara islatzen saiatuko gara.

Izan ere, "irudiaren zibilizazioan" bizi garen honetan pentsatzen dugu zinea, telebista, internet eta enparauak agertu arte jendeak ez zuela irudiekin harremanik. Erakusketa honekin ideia hau alboratu nahi genuke eta XIX. mendeko erdi aldean europar batek munduari buruz jaso zezakeen ikuspegia erakutsi.

trances más críticos.

No faltaron vascos entre aquellos viajeros temerarios. Hemos querido subrayar su presencia a través de tres personajes: Abbadie, Murga e Iradier. Suyos son los objetos que se exponen, y que pretenden ser ilustrativos de lo poco que se conserva de sus viajes.

En esta exposición destacan dos aspectos. Por un lado, la enorme variedad de paisajes y grupos humanos, por otro, la visión del mundo de los europeos del XIX. Procuramos reflejar el asombro y la emoción que provocaba el descubrimiento de territorios y gentes que hoy se nos acercan hasta casa en reportajes televisivos.

Ahora que vivimos en la "civilización de la imagen" creemos que antes de la televisión, el cine, internet, etc., la gente apenas tenía relación con las imágenes. Querríamos desterrar esta falsa idea y mostrar cómo veía el mundo un europeo de mediados del XIX.

# LE TOUR DU MONDE

"Le Tour du Monde" aldizkariaren lehen liburukiko aitzin solasean, asmoen adierazpen editorial gisa edo, honako testu hau idatzi zuen Edouard Charton zuzendariak, 1860ko ekainaren 30ean:

"Gure arloa zabala da, mugagabea esan genezake. Kontua ez da soilki Lurra ez dela guztiz ezaguna, eta egunero aurkikuntza garrantzitsuak egiten zaizkigula Afrikan, Asian, Ozeanian edo poloetan; hobeki esploratuak uste ditugun eskualdeak ere, azaletik baino ez ditugu ezagutzen. Lurbira osoa, mendez mende gizarteen eta naturaren iraultzek eraldatua, etengabe aztertu beharra dago alde desberdinetatik. Zenbat deskribapen ez zaion jada egiari lotua! Zenbat gauza desagertu da Asian, Europan edota Afrikan, Herodoto, Posidonio eta Estrabonen garaietatik, edo Amerika bietan Kolon eta Cortes han zirenetik! Alderantziz, zenbat gauza berri atzodanik, edo biharkoaz geroztik: iristezinezkotzat genituen gailurrak, giza oinak lehen aldiz zapalduak; misterioz inguratutako aintzirak, ibaiak, iturriak, bidaiari ausartek argitara emanak; basamortu itzelak, konkistaz emankor bihurtuak; landugabeko zelai emankor okituak, etorkinen itxaropenei zabalik; meategietako altxorrak, abentureroak naziotan bilarazten

En el prefacio al primer tomo de la revista, a modo de declaración de intenciones editorial, encontramos el siguiente texto del director, Edouard Charton, el 30 de junio de 1860:

"Nuestro campo es vasto; podríamos decir que ilimitado. No solamente la Tierra no es totalmente conocida, y cada día nos revela importantes descubrimientos en África, en Asia, en la Oceanía o en los polos, sino que la mayor parte de las regiones que podemos creer mejor exploradas, no lo están más que imperfectamente. Todo el globo, modificado de siglo en siglo por las revoluciones de las sociedades y de la naturaleza, debe ser estudiado incesantemente sobre nuevos aspectos. ¡Cuántas descripciones verdaderas han dejado ya de serlo! ¡Cuántas cosas desaparecidas de Asia, de África y de Europa, desde Heródoto, Posidonio o Estrabón, o de las dos Américas desde Colón y Cortés! Por el contrario, ¡cuántas escenas nuevas desarrolladas justo ayer, o que lo serán mañana: cimas reputadas inaccesibles donde el pie humano se posa por primera vez; lagos, ríos, fuentes donde intrépidos viajeros buscan, asedian, envuelven por todas partes los misterios; desiertos

dituztenak; aspaldi handienetatik harresi artean lokartutako inperioak, zibilizazioa hurbildu orduko nagiak astintzen hasten direnak!

Nonahi ikusgarri apartak, bitxiak, dotoreak, hunkigarriak! Eta, kanpoko fenomenoen azaletik bertatik, zenbat gogoeta moral biltzeko zain arraza desberdinen aztura, ohitura, erakunde, tradizio, arte eta izaerei buruz! Zenbat abentura, gorabehera, ustekabe, serio zein barregarri kontatzeko, baita, zoritxarrez, zenbat miseria eta zapalkuntza tamalgarri salatzeko kristauen iritzia eta interesa kitzikatzearren!"

inmensos fertilizados por la conquista; campos de incultas riquezas que se abren a la esperanza de las emigraciones; tesoros de minas que agrupan a los aventureros en naciones; imperios adormecidos entre sus murallas desde tiempos inmemoriales y que despiertan al fin ante la aproximación de la civilización!
¡Qué de espectáculos singulares, curiosos, solemnes, emocionantes, por todas partes! Y, sobre la superficie misma de los fenómenos exteriores, ¡qué de observaciones morales a recoger todavía sobre los hábitos, las costumbres, las instituciones, las tradiciones, las artes, los caracteres diferentes de las razas! ¡Qué de aventuras, de peripecias, de sorpresas, tanto serias como risibles, y también, desgraciadamente, qué de escenas de miseria y deplorables opresiones a denunciar a la indignación y al interés del mundo cristiano!"

Gaurisankar, 7145 m. dituen Himalayako gailurra. Urte luzez munduko altuena zela uste izan zen

Gaurisankar, pico del Himalaya de 7145 m., que en la época se consideraba el más alto del mundo

**Ocobamba urjauzia (Peru)**
Cascada de Ocobamba (Perú)





**Krusenstern tenientearen espedizioa Siberia iparraldeko kostaldean zehar**
Expedición del teniente Krusenstern a la costa norte de Siberia



**Tuarega etsaiaren buruarekin**
Tuareg con la cabeza de su enemigo

**Euchee indiarren segada**
Emboscada de los indios Euchees

# REVUE GÉOGRAPHIQUE. 1866.

"Klimaren gogortasun ikaragarriagatik, basamortuen zabalera izugarriagatik edo halako beste zerbaitengatik sarbide latza duten herrialdeetan, hala nola poloetako eskualdeetan, Afrikako iparraldean edo Australia barrenean, zoritxarrez ez da arraroa espedizio zailen arriskuei aurre egiten ausartzen diren gizon saiatuak bertan behera erortzea, hondamendi honek itsasoaren zabalean untzi baten hondoratzeak uzten dituenak baino arrasto gehiago gabe erori ere. Ikusmin zientifikoa eragin duten ibilaldi horietako bidaiari baten gainean isiltasun beldurgarria hedatu orduko, lagunak, erresuma, noiz edo noiz Europa osoa ere kezkatzen dira, eta berreskuratzeko espedizioak antolatzen dira, ahal izanez gero esploratzailea salbatzeko, edo publikoaren jakinmina aseko duten argibideak biltzeko bederen. Horrela, hogeita hamar urteren buruan, Jules de Blosseville-ren bilaketa Groenlandiako eremuetan, Franklin kapitainarena poloko horma izotzetan, Vogel-ena ekialdeko Sudanen, Burke eta Wills-ena Australiako bakardadean, herio-orrialdez idatzi dira lurbirako esplorazio lanen txostenetan."

En las partes del globo donde el acceso es defendido o por el rigor extremo de su clima, o por la vasta extensión de los desiertos, como la región polar, el norte de África o el interior de Australia, desgraciadamente no es raro que los entregados hombres que osan afrontar los peligros de las duras expediciones sucumban en medio de su empresa, sin que la catástrofe deje a su paso más señales que una nave hundida en medio del océano. Cuando un siniestro silencio se extiende en torno de uno de estos viajeros cuya partida ha provocado una gran atención científica, sus amigos, su país, Europa entera, a veces, se inquietan, y las expediciones de rescate se organizan para salvar al explorador si se está a tiempo todavía, o, por lo menos, para recoger informaciones que respondan a la ansiedad pública. Es así que, después de treinta años, la búsqueda de Jules de Blosseville en los parajes de Groenlandia, del capitán Franklin en los hielos polares, de Vogel en el Sudán oriental, de Burke y Wills en las soledades de Australia, han inscrito sus páginas mortales en los fastos de la exploración del globo."


Artikoa
El Ártico

**Bidaiari baten gorpuzkinak Australiako basamortuan**
Restos de un viajero en el desierto de Australia



**Naufragoen salbamendua Zeelanda Berrian**
Salvamento de náufragos en Nueva Zelanda

# Afrika / África



Obbotarren guda dantza
Danza de guerra Obbo

# AFRIKA / ÁFRICA

Hegoaldetik, aintzirako mendebalean, beltzak Maravi izeneko herri baten kide dira; iparralderantz igo ahala Marimbatarrak, Matumbokarrak, Makusatarrak eta Matizétarrak aurkitzen dira. Azken hauek Zuluak dira (gure errelatoetako Kafreak), Zambeziko deltaren hegoaldera dagoen Sofala inguruko kostaldetik eratorriak."
**Dr. Livingston.** L'année Géographique. 1862.

"Karaguéko beltzak, Zanzibarretik atera eta orain arte aurkitu ditugun langile eta argienak dira. Haien auzokide Ugandatarrak ere maila handikoak, "Afrikako frantsesak" dira, halakoxeak baitira erakusten dituzten erakargarritasuna, adimena, azkartasuna eta gustu ona, soinetan zein ohituretan, baita arrotzekiko harremanen jarreran ere."
**Speke Kapitaina**. Revue Géographique. 1863.

"Aurkitu berria zuten ibai hura ibaiadar Zuria zen! Speke kapitainaren desioa betea zen, eta haren egitekoa egina zegoen. Berak gainditu zituen eremu ekuatorialetako oztopo ezezagunak, baita berrabiatu ere hego Afrikako espedizio europarrak, hain zuzen Niloren goi arrokoak. Berak lortu zuen lehenik mendeetako helburua: bera izan zen ibai sakratuaren iturburuetako lurrak ikusi zituena."
**Revue Géographique.** 1863.

"Por el sur, al oeste del lago, los negros pertenecen a un pueblo llamado Maravi; subiendo hacia el norte, cruzamos sucesivamente el territorio de los Marimba, los Matumboka, los Makusa y los Matizé. Estos últimos son Zulús (los Kafres de nuestros relatos), originarios de la parte de la costa vecina a Sofala, un poco al sur del delta del Zambezi."
**Dr. Livingston.** L'année Géographique. 1862.

"Los negros de Karagué son los más industriosos e inteligentes que hemos encontrado desde Zanzibar. Los Uganda, sus vecinos, comparten esta superioridad; son los "franceses de África", tales son el atractivo, el juicio, la rápida inteligencia y el buen gusto que muestran sus personas y sus costumbres, así como su conducta en las relaciones con el extranjero."
**Capitán Speke.** Revue Géographique. 1863.

"Este río que ellos acababan de encontrar era ¡el afluente Blanco! El deseo del capitán Speke era atendido y su empresa cumplida. Él había atravesado los desconocidos obstáculos de la zona ecuatorial y relanzado las exploraciones europeas del África austral, concretamente de la cuenca alta del Nilo. Él había realizado el primero el objetivo secular: ¡él había visto la tierra misteriosa donde el río sagrado tenía sus fuentes."
**Revue Géographique**. 1863.

**David Livingston, Afrikako esploratzailerik ospetsuena**
David Livingston, el más famoso de los exploradores de Africa





Speke eta Grant britainiarren espedizioa Nilo ibaiaren iturrien bila
Salida de la expedición de Speke y Grant a la búsqueda de las fuentes del Nilo

# Hegoamerika / Sudamérica

Patagon indiarren erasoa
Ataque de los indios patagones

"Indioak, asko eta asko orduko hartan, aztikeriaz bezala agertu ziren bazter guztietatik, eta dibertsio izugarrira oldartu ziren, oihu eta garrasi, lantzak, bolak eta lakioak astinduz, guztiz inguratzen gintuztelarik. Izaki hauen itxura baino gauza tristeagorik ez dago, ia larrugorritan, trebetasun basatiaz gidatzen dituzten zaldi sutsuen gainean, infernuko suminaren antza ematen dieten gorputz sendoen kolore xigortuak eta ile zima luzeak dituztela. Borroka haren ondorioa ez zen dudatzekoa; itxaropenik gabe, eta herioari aurrez aurre begiratuz, geure buruak elkarrekin babestera ekin genion. Haietako bat zauritua izan zen, baina haren lur jotzeak ez zituen gainerakoak kikildu, batera abaildu baitzitzaizkigun; nire adiskidea, kolpeen poderioz, berriro ez jaikitzeko erori zen. Nik, ezkerreko besoa lantza batek zeharkaturik, hede luze baten bukaeran lotzen duten harri batez kolpe bat jaso nuen buruan, eta korde gabe lurreratu nintzen. Kolpe eta zauri gehiago jaso nuen, baina ahalegindu arren ez nuela altxatzea lortu besterik ez dut gogoratzen. Inguratzen ninduten indioek, nire mugimendu konpultsiboei erreparatuta, guztiz akabatu behar ninduten. Baina haietako batek, halako gizon indartsua esklabo gisa erabilgarria izango zitzaiolakoan, kontra egin zien herrikideei. Erabat biluztu ondo-

"Los indios, muy numerosos esta vez, surgieron como por encanto de todos los pliegues del terreno, y se lanzaron a una diversión feroz, con gritos guturales, agitando sus lanzas, sus bolas y sus lazos, rodeándonos por todas partes. Nada es más triste que el aspecto de estos seres medio desnudos, montados sobre sus ardientes caballos que ellos manejan con salvaje habilidad, el color tostado de sus robustos cuerpos y sus largas cabelleras, que les ofrecen una expresión de ferocidad infernal. El resultado de una lucha entre nosotros y esta banda no podía ser dudoso; sin esperanza y mirando a la muerte de frente, nos dispusimos a la defensa común, haciendo fuego sobre los más avanzados de nuestros enemigos. Uno de ellos fue herido, pero su caída no arredró a sus compañeros, que cayeron en masa sobre nosotros; mi camarada, lleno de golpes, cayó para no volverse a levantar jamás. Yo, con el brazo izquierdo traspasado por una lanza, recibí un golpe en la cabeza con una de esas bolas de piedra que ellos sujetan al final de una larga correa, y caí inanimado al suelo. Recibí aún más heridas y contusiones, pero no recuerdo más que intenté levantarme sin conseguirlo. Los indios que me rodeaban, observando mis movimientos convulsivos, se dispusieron a rematarme.

ren, eskuak bizkarrean lotu eta ni bezain biluzik zegoen zaldi baten gainean paratu ninduen, hanketatik estuki kateaturik. Hantxe hasi zen niretzat ikaragarrizko bidaia."

A. GUINARD. "Hiru urtez gatibu patagonen artean."
Le Tour du Monde. 1861.

Pero uno de ellos, pensando sin duda que un hombre tan duro sería un útil esclavo, se opuso a los deseos de sus compatriotas. Después de desnudarme completamente, me ató las manos a la espalda y me colocó sobre un caballo, tan desnudo como yo, al que me sujetó estrechamente por las piernas. Allí empezó para mi un viaje verdaderamente terrible."

A. GUINARD.
"Tres años de cautividad entre los patagones."
Le Tour du Monde. 1861.



Patagon indiarrak zaldi bat jaten
Indios patagones sacrificando un caballo



**A. Guinard frantziar esploradoreak hiru urte pasa zituen Patagoniako indiarren gatibu**
A. Guinard, explorador francés que pasó tres años cautivo de los patagones

# Iparramerika / Norteamérica



Missouriko urjauziak
Cataratas del Missouri

"Zeremonia maisuak besagaineko, ukalondoko, gero hanketako, belaun zokoetako, aztaletako eta peroneko larruazal eta haragiak tinkatzen zituen, labanez poliki zulatuz, eta bularrean eta bi sorbaldetan bukatu zuen. Zulo hauek zurezko ziriez zeharkatuta, wigwameko sabaitik hede zakar bat jaisten zuten, haren muturra gizonen sorbalda edo bularretako zirietara sendo lotuz. Gizon bakoitzak eskuineko eskuan medizina zakutoa zeraman; denek zituzten, besagain eta hanketako zirietatik zintzilik, bisonte kaskezurrak, haien pisuak inarrostea galeraz ziezaien torturatu gizagaixoei. Seinalea egin orduko, hedeari tira eginez lurretik hiruzpalau oinetara altxatzen zituzten, zirietara lotutako objektuak lasai mugitzen ahal ziren arte; gero, soina gorriz eta esku oinak beltzez margotutako beste batek, haga motz baten bidez, zintzilikatuak jirabiran jartzen zituen.

Jirabira hura, astiro hasi eta gero eta arinago zen, biktimak konortea zeharo galdu arte. Hautagai gazteek pairatu behar zituzten oinaze mingarriek, urradurek, zauri barruko ziriek, zintzilikatu izanak ez zieten zinkurin edo aiene bakar bat ere erauzi; baina hedearen lehen jirabiretatik oihuka hasi zitzaizkion Espiritu Handiari, sufrimendu ikaragarri haiek hil gabe eraman ahal izateko indarra erregutuz. Ez nuke asmatuko arima

"El maestro de ceremonias estiraba la piel y la carne del antebrazo, del codo, después de las piernas, detrás de las rodillas, de las pantorrillas y del peroné, perforándolas lentamente con su cuchillo, terminando por el pecho y los dos hombros.

Tras practicar las incisiones y atravesadas éstas por las clavijas de madera, descendían desde el techo del wigwam una basta cuerda de piel, fijándola sólidamente al extremo de la hendidura de los hombros o del pecho de los pacientes. Cada uno de ellos tenía en su mano derecha su saco de medicina; y a todos ellos les colgaban de los clavos de los antebrazos y de las piernas un cráneo de bisonte, cuyo peso debía impedir el que los pobres torturados se debatieran. Al dar la señal, tirando de la cuerda los izaban a tres o cuatro pies del suelo, hasta que los objetos fijados a las clavijas pudieran oscilar libremente; después, otro individuo con el cuerpo pintado de rojo, las manos y los pies negros, comenzaba a hacer girar a los suspendidos sobre ellos mismos, por medio de una corta pértiga con la que iba armado.

El movimiento de rotación, lento al principio se irá acelerando hasta el completo desvanecimiento de la víctima. Los dolorosos suplicios que debían sufrir los

urratzen zidaten eta poliki-poliki, konortea galtzen zuten heinean ahultzen zihoazen garrasi latz haiek deskribatzen. Otoitz haien itzulpenik ere ez nuen lortu, baina denak antzekoak iruditu zitzaizkidan eta, ezbairik gabe, jaiaren erritoaren osagai ziren."

**G. CATLIN.**

"Txangoa Columbia eta Missouri Garaiko indioen tribuetan barrena" 1855.

**Le Tour du Monde.** 1869.

jóvenes candidatos, el corte, las inserciones en las heridas, la propia suspensión, no les arrancaron ni una queja, ni un murmullo; pero, desde las primeras vueltas de la cuerda, comenzaron a gritar al Gran Espíritu, implorando la fuerza para soportar sin morir sus terribles sufrimientos. No sabría describir el sonido lúgubre de estos gritos que me partían el alma, y que disminuían poco a poco, a medida que los pacientes perdían el conocimiento. No pude conseguir la traducción de estos rezos, pero me parecieron todos parecidos, y que formaban parte, sin duda, del ritual de la fiesta."

**G. CATLIN.**

"Excursión entre las tribus indias de los valles de Columbia y alto-Missouri" 1855.

**Le Tour du Monde.** 1869.



"O-Kie-Pa", proba nagusia.
Mandan indiarren zeremonia
"O-Kie-Pa", la gran prueba.
Ceremonia entre los indios Mandan

**Froga Handiaren ondorengo dantza**
Danza posterior a la Gran Prueba

# Asia / Asia



**Taj Mahaleko etorbide handia, Agran**
Gran avenida del Taj Mahal, en Agra.

"Suplizio hau ezein gizoni sekula bururatu zaion gogorrenetakoa da. Kondenatua, oinez eta eskuz kateatua, gerritik lotzen da soka luze batez elefante baten atzeko hanketara. Hau trosta luzean abiarazten da hiriko kaleetan barna, eta pauso bakoitzak gogor egiten dio tira sokari, kondenatuaren gorputza bidearen gainean jauzika eramanez. Danbateko horietako batean hiltzea da gizagaixoari geratzen zaion itxaropen bakarra; bestela, hiria zeharkatu ondoren, askatzen dute, eta ankerkeria sotil batez, baso bat ur eskaini. Segituan, burua harri baten gainean pausatu eta elefanteak kraskatu egiten du bere oin itzelaz."

**Louis ROUSSELET.** "Rajah-en India".
**Le Tour du Monde.** 1871.

"Este suplicio es uno de los más duros que el hombre ha imaginado. El condenado, atado de pies y manos, es enganchado por la cintura a una larga cuerda fijada a las patas traseras de un elefante. Éste es lanzado a trote largo a través de las calles de la ciudad y cada uno de sus pasos provoca en la cuerda un violento tirón que hace rebotar el cuerpo del condenado sobre el camino. La única esperanza que le queda al desgraciado es la de morir en uno de estos choques; si no, después de atravesar la ciudad, lo sueltan, y con una refinada crueldad, le ofrecen un vaso de agua. A continuación colocan su cabeza sobre una piedra y el elefante la destroza con su enorme pie."

**Louis ROUSSELET.** "La India de los Rajahs".
**Le Tour du Monde.** 1871.

Merkatua Kanbodian.

"Kontua ez da erresuman ez dutela txanponik ezagutzen, Siameko tikal-a, ofiziala baita, eta piastra mexikarra ibili badabiltza; baina oso kopuru eskasetan aurkitzen da. Dibisiozko txanpon gisa, Stung Treng-en burdinazko xafla txikiez baliatzen dira. Erdialdean 3 cm. zabal dira, gutxienez cm. 1 lodi eta 14 edo 15 cm. luze; 200 bat gramoko pisua dute eta 10 eskaintzen dira tikal baten truke. Txanpon bitxi eta deseroso hau, burdinari herrialde zibilizatuetan ematen zaion balioa 8 edo 9 aldiz gehitzen diona, Tonly Repou kanbodiar probintziatik dator. Halako burdina xafla baten truke bertakoek bi oilasko eman ohi dituzte."

**Francis GARNIER.**

"Voyage d'exploration en Indo-Chine 1866-1868".

**Le Tour du Monde.** 1871.

Mercado en Camboya.

"No es que la moneda sea desconocida en el país: el tical siamés, que es la moneda oficial, y la piastra mexicana están en curso; pero no se encuentran más que en cantidades muy escasas. Como moneda divisionaria, en Stung Treng se sirven de pequeñas barras de hierro aplanadas, de 3 cm. de ancho en el centro, de por lo menos 1 cm. de espesor y 14 ó 15 cm. de largo. Pesan en torno a 200 gr. y se ofrecen 10 por un tical; esta moneda singular e incómoda, que atribuye al hierro un valor 8 ó 9 veces superior al que se le da en los países civilizados, proviene de la provincia camboyana de Tonly Repou. Por una de estas barras de hierro los habitantes dan normalmente dos pollos."

**Francis GARNIER.**

"Voyage d'exploration en Indo-Chine 1866-1868".

**Le Tour du Monde.** 1871.

Sowari jaialdiko errege-zutoihala, Barodan
Estandarte real en la fiesta de Sowari, Baroda

**Heriotza zigorra Indian**
Ejecución en la India de los rajáhs



Azoka Pnom Penh hirian, Kanbodian
Mercado en Pnom Penh, Camboya

Angkor Wat, Kanbodian
Angkor Wat, Camboya



# Artikoa / Ártico

**Naufragoak tenpano baten gainean**
Náufragos sobre un témpano

"Behin, Groenlandiako Port Foulken igeriketan zebilen mortsa saldo handi baten jazarpenean abaildu genuen gure balea-txalupa. Arpoiaz zauritu berria genuen ar zahar baten ulu etsiek talde oso bat erakarri ziguten, dena samin eta marruma. Nik ez nuen sekula ikusia halako gorputz beltzen bilkura itsasoa betetzen, ez eta ere entzuna lehoiaren orroaren eta zezenaren marrumaren arteko hots ilunen kontzertu hura bezalakorik. Geure biziak salbatzearren borroka egin behar izan genuen. Eraginkortasunak edo odol hotzak huts egin baligute, ontzia suntsituko zatekeen eta geu ezbairik gabe ur izoztuetan edo mortsen hortzetan hilko ginatekeen. Zaila da irudikatzea eraso hau baino temosoago eta suminagorik, giza irudimenak ezin baitu gogora ekarri, beren letagin ikaragarriak elkar joka dituztela, munstro handi hauek baino etsai okerragorik. Halako arerioen aurka defentsa eskasa da karabina, eta kementsu erabili genituen arraunen indarrik gabe, talde hark txiki-txiki eginda utziko gintuzkeen."

**J.J. HAYES.**

"Voyage a la mer libre du Pôle Artique".

**Le Tour du Monde**. 1868.

"En una ocasión, habíamos lanzado nuestra lancha ballenera a la persecución de una enorme banda de morsas, que nadaban a la entrada de Port Foulke (Groenlandia). Los gritos desesperados de un viejo macho, que acabábamos de herir y arponear, atrajeron sobre nosotros todo un grupo furioso y mugiente. Yo jamás había visto tal reunión de cuerpos negros llenando el mar, ni oído tal concierto de sonidos cavernosos, entre el rugido del león y el mugido del toro. Tuvimos que luchar por nuestras vidas. Si nos hubieran fallado la actividad o la sangre fría, nuestra embarcación hubiera sido destrozada y nosotros hubiéramos miserablemente perecido en las heladas aguas o entre los dientes de las morsas. Es difícil imaginar un asalto más determinado, más furioso que éste, y la imaginación humana no puede representarse enemigos peores que estos grandes monstruos con sus largas defensas entrechocando. Contra tales adversarios una carabina es una pobre defensa, y sin la fuerza de nuestros remos, enérgicamente utilizados, hubiéramos sido destrozados por la masa del grupo."

**J.J. HAYES.**

"Voyage a la mer libre du Pôle Artique".

**Le Tour du Monde**. 1868.



Hartz zuri baten erasoa Artikoan
Ataque de un oso blanco en el Ártico

Morsen erasoa Baffin itsasoan
Ataque de morsas en el Mar de Baffin

Europa / Europa

Santa María de Belém-eko ataurrea. Portugal
Portal de Santa María de Belém. Portugal



"Badakigu Espainian hiltzeko zigorra ***garrotez***, hau da, itomenez aplikatzen dela. Kriminal batek zigorra jasan behar duenean, egun batzuk lehenago hasten dira itsuak kaleetan barrena, gure ahate saltzaileen antzera, exekuzio programa iragartzen, alegia, suplizioaren egunà, ordua eta tokia, kondenatuari buruzko xehetasun guztiak ere ematen dituztela. Normalean exekuzioa aldirietako zabaltza handi batean gertatzen da. Egun horretan hiria bizi-bizi agertzen da; plaza nagusietan propio joandako ibilgailu guztiak egoten dira, bidaiariez bete orduko suplizio tokira lau hazkatan abiatzen direnak, berehala itzuli eta bidaia ahalik eta gehienak egiteko asmoz. Klase guztietako milaka lagun elkartzen dira biltoki triste honetan. Pastelak, zigarroak, sua eta ura, salgai guztiak oihuka iragartzen dira jendetzaren artean; belar gainean, han-hemenka sakabanatzen dira taldetxoak, beraiek eramandako jakiak lasai asko irensten dituztenak. Esan beharra al dago, gure erresuman bezala, emakumeak direla, gertakizun bortitzen egarriz, gehiengoa?

**CH. DAVILLIER.** "Voyage en Espagne".
**Le Tour du Monde.** 1862

"Sabemos que en España la pena de muerte se aplica por medio de ***garrote***, es decir de la estrangulación. Cuando un criminal debe sufrir su castigo, se escucha desde varios días antes la voz de los ciegos, que sustituyen a nuestros vendedores de patos, anunciar por las calles el programa de la ejecución, que contiene el día, la hora y el lugar del suplicio, con todo tipo de detalles sobre el condenado. Ordinariamente la ejecución tiene lugar en una vasta explanada, cerca de los suburbios. Ese día la villa presenta un aspecto de animación extraordinaria; en las principales plazas estacionan todo tipo de vehículos preparados para la ocasión, que, en cuanto se llenan de viajeros, parten al galope al lugar del suplicio y vuelven inmediatamente, a fin de realizar el mayor número de viajes posible. Miles de personas de todas las clases se reúnen en esta triste cita. Vemos vendedores que ofrecen pasteles, cigarros, fuego y agua, recorrer la multitud gritando sus mercancías; aquí y allá, sobre la hierba, se forman grupos de gente que come tranquilamente las provisiones que ellos mismos aportan. ¿Habrá que añadir que, como en nuestro país, las mujeres, ávidas de emociones violentas, son aquí mayoría?

**CH. DAVILLIER.** "Voyage en Espagne".
**Le Tour du Monde.** 1862



Garrote bidezko heriotza-zigorra Bartzelonan
Aplicación del garrote vil en Barcelona

**Bartzelonako ikuspegia**
Vista de Barcelona

Eskaleak Bartzelonako katedraleko atarian
Mendigos en la puerta de la catedral de Barcelona

# Ozeania / Oceanía



Kanakien etxea
Casa Kanaki

"Haien buruzagia guganantz zetorren, borrokaren biktimetako baten hanka sorbaldan zeraman gerlari batez lagundurik; gure oinetara jartzeko agindu eta hala esan zuen:

*Hona hemen zure eta nire etsaiaren puska bat. Bere hezurrek bere tribuaren baitan atseden hartuko zutela uste zuen; baina kaskezurra eguzkitan zurituko zaio gure etxeen aurrean, gure andre eta umeek barre egingo dute ikusteran, eta bere haragiak oturuntza ederra eskainiko die nire gerlariei, hala kementsuago eta indartsuago izango baitira gero. Aukeratu zuretzat eta zureentzat gustukoen duzun zatia."*

**Jules GARNIER.**
"Voyage a la Nouvelle-Calédonie".
**Le Tour du Monde.** 1868.

"Su jefe avanzó hacia nosotros, seguido por uno de sus guerreros, que transportaba a la espalda la pierna de una de sus víctimas en el combate; le ordenó que la pusiera a nuestros pies y dijo:

*"He aquí un trozo de tu enemigo y del mío. Él creía que sus huesos descansarían en su tribu: pero su cráneo se blanqueará al sol ante nuestras casas, nuestras mujeres y niños reirán al verlo, y su carne suministrará un buen festín a mis guerreros, que serán después más bravos y más fuertes. Elige para ti y los tuyos la parte que más te guste."*

**Jules GARNIER.**
"Voyage a la Nouvelle-Calédonie".
**Le Tour du Monde.** 1868.

Tribuen arteko borroka Kaledonia Berrian
Guerra tribal en Nueva Caledonia


Kanaken dantza (Kaledonia Berria)
Baile Kanako (Nueva Caledonia)

# Munduari bira eta Jules Verne / La vuelta al mundo y Julio Verne

Badakigu Jules Verne irrikaz egoten zela "Le Tour du Monde"-ren azken zenbakia noiz iritsiko zain, artikuluak irakurri ez baina irensteko, entretenimendua ez ezik bere istorioak idazteko mamia ematen baitzioten. "Munduari ingurua 80 egunetan" eleberri ospetsua faszikuluka argitaratu zen "Le Temps" aldizkarian, 1872ko azaro eta abendu bitartean, eta ondoren 1873an bolumen batean.

Hiru urte lehenago, hauxe irakurria zuen "Le Tour du Monde"-ren atal batean:

"Eztabaidaezina da bi bide hauek, Suezeko Ubidea eta Itsaso Bareko Burdinbidea, biak batera bukatuak bi hemisferioetan, komunikazio orokorrak modu miragarrian bultzatzeko gauza izango direla. Bide orain zuzen eta etengabeak lurbira osoa hartzen du, lurruna den bitarteko azkarrari esker, bere alde ederren eta aberatsenean hartu ere: han, naturak bere oparotasun miresgarrienak agertu, hemen, gizonaren jeinuak bere eraikuntzarik handienak erakutsi. Mediterraneoa, gure zibilizazioaren eta gure historiaren sorleku; India eta Hego Asiako itsaso naroak; Ekialde Urruneko erresuma eta

Sabemos que Julio Verne aguardaba con ansiedad cada número que se publicaba de "Le Tour du Monde", para devorar sus artículos, que no sólo le entretenían, sino que sacaba de ellos argumentos para sus historias. La famosa novela "La vuelta al mundo en 80 días" se publicó por fascículos en la revista "Le Temps" entre noviembre y diciembre de 1872, y posteriormente en un volumen en 1873.

Tres años antes, Verne había leído el siguiente texto en una sección de "Le Tour du Monde":

"Es incontestable que estas dos grandes vías, simultáneamente finalizadas en los dos hemisferios, el Canal de Suez y el ferrocàrril del Pacífico, van a activar prodigiosamente las comunicaciones generales. Una línea ahora directa e ininterrumpida, servida por el rápido medio del vapor, abarca el globo todo entero en su zona más bella y la más rica, allá donde la naturaleza despliega sus más admirables esplendores, aquí donde el genio del hombre ha producido sus más grandes creaciones. El Mediterráneo, cuna de nuestra civilización y de nuestra historia, los espléndidos mares de la India y

nazioak gure harremanetara zabaltzen dira; mundu ozeanikoen espazio mugagabeak, artxipelago kontaezinez zipriztinduak; amerikar kontinentearen zeharkatze orain erraztua, eta Atlantikoa, gaur Mundu Zaharra eta Berria berezi baino gehiago elkartu egiten dituena. Hona hemen mundu modernoaren bide sakratua, Merkataritzaren eta Zibilizazioaren bidea. Lehen, lurmutur itzelak inguratu beharrez, bidaiari batek gutxienez hiru urte behar izaten zituen munduari bira egiteko; gaur periploa hiru hilabete eskasetan egin dezake. Hona hemen kalkulua, pixka bat ere murritz litekeena:

Parisetik Port-Saidera, Suezeko Ubidearen buruan, burdinbidez eta bapore zerbitzuan .....6 egun
Port-Saidetik Bonbaira, baporez.....14 egun
Bonbaitik Kalkutara, burdinbidez.....3 egun
Kalkutatik Hong-Kongera, baporez .....12egun
Hong-Kongetik Yedora, baporez.....6egun
Yedotik Sandwich Uharteetara, baporez.....14 egun
Sandwich Uharteetatik San Franciscora, baporez.....7 egun

del sur de Asia, los países y las naciones del Extremo Oriente que se abren a nuestras relaciones, los espacios inmensos del mundo oceánico con sus innumerables archipiélagos, la travesía convertida fácil del continente americano, y, en fin, el Atlántico, que reúne hoy más que separa el Viejo y el Nuevo mundo: he aquí la vía sagrada del mundo moderno. Es la ruta del Comercio y de la Civilización. Antes, con los inmensos rodeos alrededor de los grandes cabos, un viajero necesitaba por lo menos tres años para dar la vuelta al mundo; hoy se puede realizar el periplo en menos de tres meses. He aquí el cálculo, en el que todavía se podría reducir algo:

De París a Port-Said, cabeza del canal de Suez, ferrocarril y servicio de vapor .....6 días
De Port-Said a Bombay, barco de vapor.....14 días
De Bombay a Calcutta, ferrocarril .....3 días
De Calcutta a Hong-kong, barco de vapor.....12 días
De Hong-kong a Yedo, barco de vapor.....6 días
De Yedo a las Islas Sandwich, barco de vapor...14 días
De las Islas Sandwich a San Francisco, barco de vapor .....7 días

San Franciscotik New Yorkera, Itsaso Bareko burdinbidez .....7 egun
New Yorketik Parisera, bapore zerbitzuan .....11 egun

Guztira.....80 egun

**Revue Géographique.** 1869.

De San Francisco a New-York, ferrocarril del Pacífico .....7 días
De New-York a París, servicio a vapor.....11 días

Total.....80 días

**Revue Géographique.** 1869.



**Suezeko Ubidearen lanak**
Obras del Canal de Suez



**Kalkuta**
Calcuta



**San Francisco**
San Francisco

# Speke eta Grant / Speke y Grant

John Hanning SPEKE (1827-1864), britainiar militar eta ehiztari trebeak, Richard BURTON bidaiari ospetsuaren gonbidapena jaso zuen Afrika ekialdera egin asmo zuen espedizioan partaide izateko 1855ean. Ordurako Burtonek fama irabazia zuen Mekara iritsitako lehen mendebaldarra izan zelako. Espedizioa Somaliara iritsi bezain laister bertakoen erasoa jasan zuten, Burton eta Speke zaurituak izan zirelarik.

Handik bi urteetara Burtonek beste espedizio bat antolatu zuen Tanganyka lakura, Nilo ibaiaren iturria ote zen ziurtatzera eta berriro gonbidatu zuen Speke. Oso bidaia gogorra izan zen eta ez zuten Tanganyka lakua erabat inguratzerik lortu. Burton gaixorik zegoela, 1858ean, Speke iparraldera joan zen Nyanza lakuaren bila. Burtonen ondora itzuli zenean aurkitutako lakua, Victoria izenez bataiatu zuena, Nilo ibaiaren iturria izan zitekeela sinesten zuen, baina Burtonek ez zuen berria onartu, Spekek hegoaldetik bakarrik ikusi baizuen izugarri haundia zen aintzira.

Erresuma Batura itzuli zirenean, 1859an, Royal Geographic Society elkartean sekulako eztabaidak sortu ziren, batzuk Speke-ren alde, besteak Burtonen

El militar británico John Hanning SPEKE (1827-1864), diestro cazador, recibió en 1855 la invitación del célebre viajero Richard BURTON para participar en una expedición al África Oriental. La fama de Burton se debía a haber sido el primer occidental que había visitado La Meca. Nada más llegar a Somalia, la expedición fue atacada y tanto Burton como Speke resultaron heridos.

A los dos años, Burton organizó otra expedición al lago Tanganyka, creyendo que podía ser la fuente del Nilo, y de nuevo invitó a Speke. Fue un viaje muy duro y no consiguieron rodear totalmente el lago. En 1858, estando enfermo Burton, Speke se dirigió al norte, en busca del lago Nyanza. Cuando se reunió con Burton, le comunicó que había rebautizado el lago como Victoria y que creía haber descubierto en él la fuente del río Nilo, pero Burton no admitió tal descubrimiento porque Speke sólo había avistado el lado sur de este lago vastísimo.

A su vuelta al Reino Unido en 1859, la polémica estalló en la Royal Geographic Society entre los partidarios de Speke y los que compartían los recelos de Burton.

mesfidantzarekin bat zetozelako. Dena den, elkarteak Speke berriro Afrikara bidaltzea erabaki zuen, bere teoria baieztatu ala ezeztatu zezan.

1860an irten ziren Speke eta bere kide berria, James GRANT kapitaina, Victoria lakurantz, ostean ibaia jarraituz Khartum hiritik irtendako John Petherickekin bat egiteko asmoz, honela bere teoria behin betirako ziurtatuz. Hiru urtez luzatu zen espedizio hau.

Speke, Afrikatik itzuliz geroztik urtebetera hil zen, oso argi ez dagoen ehiza istripu baten ondorioz, zenbaitzuk bere buruaz beste egin zuenaren susmoa baidute.

Al final, la sociedad decidió reenviar a Speke a África, a ratificar o desechar su teoría.

En 1860 partieron Speke y su nuevo compañero, el capitán James GRANT, hacia el lago Victoria, con la intención de encontrarse con Petherick, que había partido río arriba desde Jartum, para demostrar así definitivamente su teoría. La expedición se prolongó durante tres años.

Speke murió al año de volver de África, en un confuso accidente de caza que algunos interpretaron como suicidio.



James Grant kapitaina, eserita, eta John Hanning Speke kapitaina, bidaiarako prest.
El capitán James Grant, sentado, y el capitán John Hanning Speke, preparados para el viaje.

Nilo ibaiaren iturriko lurraldeen mapa.
Mapa de los territorios de las fuentes del Nilo.



Zanzibar. Afrika ekialdeko portu garrantzitsua, mendeetan zehar esklabuen azoka nagusia izandakoa. Hemendik irtetzen ziren inguru hauetan egiten ziren espedizio guztiak. Speke kapitainak 1860ko abuztuaren 25ean utzi zuen hiri hau.

Isla de Zanzibar. Puerto de gran importancia, durante siglos fue el principal mercado de esclavos del África Oriental. De aquí partían todas las expediciones de esta área. El capitán Speke partió de aquí el 25 de agosto de 1860.



Speke eta Grant bidaiarien espedizioaren karabana kostaldetik irteten (1860-X-2). Izugarria izango zen tamaina honetako giza taldearen mugimendua, bisitariak jasotzen ohitu gabeko lurraldeetan.

La caravana expedicionaria de Speke y Grant se pone en marcha desde la costa (2-X-1860). Debía de ser enorme el impacto de estas expediciones a su paso por territorios poco acostumbrados a recibir visitantes.



Bidaiariek aurkitzen zituzten talde etniko desberdinen deskribapen zehatzak jasotzen zituzten. Irudian, Uzaramo tribua, oraindik kostaldetik gertu.

Los grupos étnicos que los viajeros hallaban a su paso eran descritos con minuciosidad. En la imagen, la tribu Uzaramo, todavía próxima a la costa.

Arrisku ugari jasan behar izaten zuten bidaiariek. Irudian, Speke bufalo baten erasoa ekiditen.

Los viajeros debían soportar muchos y diversos peligros. En la imagen, Speke esquiva la embestida de un búfalo.

Bidaiariek zeharkatutako lurraldeetan esklabutza ohikoa zen oraindik. Irudian, Unyamoezi tribukoak.
Esclavos de la tribu Unyamoezi. La esclavitud era aún habitual en los territorios atravesados.



Uzinza lurraldeko dantza, Nyanza (Victoria) laku hegoaldean. Ezkerrean Grant kapitaina erreginarekin dantzan ikus daiteke (1861-VII-11).
Danza del territorio Uzinza, al sur del lago Nyanza (Victoria). A la izquierda se observa al capitán Grant bailando con la reina (11-VII-1861).

Bidaiarien kanpamendua Utungu haranean, Nyanza lakuaren mendebalderantz (1861-X). Zenbait lekutan bertako biztanleen erasoak jasaten bazituzten ere, besteetan janariz hornitzen zituzten.

Campamento de los viajeros en el valle Utungu, al occidente del lago Nyanza (X-1861). Si bien en algunos lugares los recibían con ataques, en otros los aprovisionaban de alimentos.



Weranhanje mendiaren inguruko lurraldeetan, Nyanza lakuaren mendebaldean oraindik, Rumanika zen errege. Speke 1861ko urria hondarrean iritsi zen bertara erregerentzat opari ugarirekin.

En los territorios alrededor del monte Weranhanje, también al oeste del lago Nyanza, el rey era Rumanika. Speke llegó a fines de octubre de 1861 con numerosos regalos para el rey.



Mtesa, Ugandako errege. Nyanza lakuaren iparralde guztian zabaltzen zen bere erreinua. Speke eta Grant 1862ko otsailean iritsi ziren hona.
Mtesa, rey de Uganda. Su reino se extendía al norte del lago Nyanza. Speke y Grant llegaron allá en febrero de 1862.

Ugandako biztanleen arma eta bitxiak. Bidaiariak lan geografikoez gain, etnografikoak ere burutzen zituzten.
Armas y joyas de los habitantes de Uganda. Los viajeros realizaron anotaciones tanto geográficas como etnográficas.





Speke eta Grant kapitainen "fidelak". Espedizioetan desertzio ugari izaten ziren zamazain eta zaintzaileen artean. Ez da harritzekoa urteetan luzatzen ziren bidaietan.

Los "fieles" de Speke y Grant. Las deserciones de porteadores y vigilantes eran frecuentes en las expediciones, algo comprensible en viajes que duraban años.



Grant kapitaina gaixorik bidaiatzen. Gaixotasun tropikalek askotan atzeratzen zuten espedizioa. Batzutan, arriskuak ekiditeko, ez zegoen sendatu arte geratzerik.

El capitán Grant viaja enfermo. Las enfermedades tropicales atrasaban a menudo la expedición. A veces, a causa de los peligros, no era posible detenerse hasta la total recuperación.



Ripon urjauzia, Nilo ibaia Nyanza lakutik irteten. Erromatarren garaitik arrakastarik gabe bilatutako Niloren iturria aurkitua.
Catarata Ripon, el río Nilo al salir del lago Nyanza. La fuente del Nilo, buscada sin éxito desde época romana, por fin había sido descubierta.



Behin helburu nagusia lortuz gero, Speke kapitainak elefanteak ehizatzeko aukera aprobetxatu zuen.
Conseguido el objetivo principal del viaje, el capitán Speke aprovechó para cazar elefantes.



Unyoro lurraldeko errege, Kamrasi, bidaiariek eskainitako bibliari begiratzen (1862-X-29). Zailtasun ikaragarriak izaten zituzten erreinu batetik bestera igarotzerakoan, ohikoa denez auzoak etsai izaten zirelako eta ondokoen lurraldetik zetorrenez mesfidati. Gainera Unyorokoak kanibalak zirenaren ustea zuten Speke eta Grantek.

Kamrasi, rey del territorio Unyoro, observa la biblia ofrecida por los viajeros (29-X-1862). Las dificultades para cruzar de un reino a otro eran muy grandes, puesto que los vecinos solían ser enemigos y se desconfiaba de quienes provenían de otros territorios. Además, Speke y Grant creían que los de Unyoro eran caníbales.

Gani lurraldeko biztanleak, Speke eta Grantek "zibilizaziora" iritsi aurretik ezagututako azkenak (1862-XI).

Habitantes del territorio Gani, los últimos reconocidos por Speke y Grant antes de volver a la "civilización" (XI-1862).





Madi lurraldera iritsitakoan Petherick britainiarra aurkitzea espero zuten, baina berak bidalitako talde turkiarra zuten zain (1862-XII-3). Bi urte eta erdi europar bat ikusi gabe igaro ostean izugarrizko dezepzioa suposatu zuen beraientzat.

Al llegar al territorio Madi, esperaban hallar al británico Petherick, pero se encontraron con un grupo turco que éste había enviado (3-XII-1862). Supuso una gran decepción para ellos, tras dos años y medio sin haber visto un europeo.

Gondokoro herria, non Baker ehiztari britainiarra eta Spekeren laguna aurkitu zuten 1863ko otsailaren 13an. Bertan jaso zuten Ingalaterratik bidalitako korrespondentzia lehenengo aldiz Zanzibar utzi zutenetik.

Gondokoro, donde hallaron al cazador británico Baker, amigo de Speke, el 13 de febrero de 1863. Allí recibieron por primera vez, desde que abandonaron Zanzibar, la correspondencia de Inglaterra.



# ANTON ABBADIA

Antoine Thompson d'Abbadie Dublinen jaio zen 1810. urtean. Aita zuberotarra, iraultza garaian soldaduskatik ihesi atzerriratua, eta ama irlandarra zituen. Hamar urte zituela Frantziara jo zuen familiak, beraz ikasketak bertan egin zituen, Tolosan (Frantziakoan) lehenengo, zuzenbide ikasketak hasi arte (1828), Parisen gero, zuzenbideaz gain zientzia eta letretan ikasketa ugari eginez (astronomia, fisika, geologia, filologia...). Dena den, hemen bere bidaiak aipatzera mugatuko gara.

Bizitzan zehar zientzia-bidaia ugari egin zituen. Brasilera 1836ean joan zen lurraren magnetismoa aztertzera Zientzia Akademiaren enkarguz. Etiopiako bidaiaren ostean Jerusalem (1850), Norvegia (1851), Briviesca (1860) eta Algerian (1867) ibili zen eguzki eklipseak aztertzen. Eta 1882an Haitira jo zuen ikerketa astronomikoak egitera.

Afrikari dagokionez ekialdea interesatzen zitzaion bereziki, Etiopia ingurua. Bertan talde etniko, hizkuntza eta baita erlijio ugari ere nahasten ziren, kondairez betetako lurraldean. Nola ez, Nilo ibaiaren iturrien bila ere jo zuen Abbadiak bere anaiarekin batera.

Abbadia anaiak, Antoine eta Arnauld, 1837an joan ziren lehenengoz Etiopiara, 1848 arte bertan geldituz. Antoinek 1839an Pariserako bidaia egin zuen zientzia tresna teknikoen bila (kronometroak, sextanteak, hipsometroak...), hurrengo urte hasieran itzuliz. Antoinek

Antoine Thompson d'Abbadie nació en Dublín en 1810. Su padre, natural de Zuberoa, se exilió para evitar el ejército en la época revolucionaria; su madre era irlandesa. Cuando Antoine tenía diez años, la familia se trasladó a Francia, y allí realizó sus estudios, primero en Toulouse y a partir de 1828 en París, donde combinó la carrera de Derecho con otros estudios científicos: astronomía, física, geología, filología...

Realizó numerosos viajes científicos. El primero fue a Brasil, en 1836, a analizar el magnetismo de la tierra por encargo de la Academia de Ciencias. Tras sus expediciones en Etiopía viajó a Jerusalén (1850), Noruega (1851), Briviesca (1860) y Argelia (1867), estudiando los eclipses de sol. En 1882 se dirigió a Haití a hacer investigaciones astronómicas.

Le interesó especialmente África Oriental, la región de Etiopía. Era un país lleno de historia, un crisol de grupos étnicos, lenguas, religiones. Como era de esperar, se encaminó con su hermano en busca de las fuentes del Nilo.

Los hermanos Abbadie, Antoine y Arnauld, fueron a Etiopía por primera vez en 1837, y allí permanecieron hasta 1848. Antoine volvió a París en 1839, a recoger instrumentos científicos (cronómetros, sextantes, hipsómetros...), regresando a principios del año siguiente. Antoine realizó numerosas investigaciones, principal-

ikerketa ugari egin zituen, geografia, etnografia eta hizkuntzalaritzan gehienbat. Ekimen nagusia Goi-Etiopiako lurralde zabal baten puntu geodesikoak zehaztea izan zen, Massawa hiritik (Eritreako kostaldea) Gondar herriraino (Etiopia), bitartean bertako biztanle eta hizkuntzei buruzko informazio ugari jasoz. Arnauldek, berriz, anaiari bere lanetan laguntzeaz gain, bertako erregeen arteko borroketan parte hartu zuen militar modura, maiz anaiarentzat beraien babesa bermatuz. 1846ko hasieran Nilo ibaiaren iturri mitikoak aurkitu zituztela uste izan zuten, nahiz eta ondorengo aurkikuntzek beraiena ezeztatu zuten.

Familiak, bi urtez anaien berririk jaso gabe zeudenez, hirugarren anaia, Jean-Charles, bidali zuten bila 1847an. Hiruak 1848an itzuli ziren Frantziara.

Antoinek urteetan zehar bidaia honen emaitzak argitaratu zituen, hala nola, Etiopiako mapak (1862-69), Géographie de l'Etiopie (1890), Kam-en lurraldeko hizkuntzei buruzko berriak (1872), Amarrinna hizkuntzaren hiztegia (1881), baita bidaiarientzat aholkuak eskeiniz idatzitako artikulu ugari ere. Honen ondorioz aipa dezakegu Manuel Iradier bidaiari gasteiztarrarekin izandako harremana, zeinek sortutako Asociación Africanista elkartearen ohorezko lehendakari izendatu zuen Abbadia.

Antoinek Hendaian eraiki zuen gazteluan, bere Afrikako

mente de geografía, etnografía y lingüística. Su principal misión consistió en concretar los puntos geodésicos en un amplio territorio de la Alta Etiopía, desde la ciudad de Massawa, en la costa de Eritrea, hasta la ciudad etíope de Gondar. Aprovechó este trabajo para recoger abundantes informaciones sobre los habitantes y lenguas de estos territorios. Arnauld, además de ayudar a su hermano, participó como militar en las guerras de los reyes locales, asegurando así la protección de su hermano. A principios de 1846 creyeron hallar las míticas fuentes del Nilo, pero descubrimientos posteriores demostraron que no fue así. Tras dos años sin recibir noticias de los dos hermanos, en 1847 la familia envió un tercero, Jean-Charles, en su busca. En 1848 volvieron los tres a Francia.

Antoine publicó los resultados de este largo viaje, como son los mapas de Etiopía (1862-69), *Géographie de l'Etiopie* (1890), noticias de las lenguas del país de Cam (1872), un diccionario de la lengua amarrinna (1881) y numerosos artículos con consejos para los viajeros. Se relacionó con el viajero vitoriano Manuel Iradier, que nombró a Abbadie presidente de honor de su *Asociación Africanista*.

En el castillo que Antoine hizo construir en Hendaia se conservan todavía numerosos recuerdos de sus viajes africanos. Se puede afirmar que los hermanos Abbadie

bidaietan jasotako oroigarri ugari gordetzen dira oraindik.
Zalantzarik gabe esan dezakegu Abbadia anaiak XIX. mendeko euskal esploratzaileen aintzindariak izan zirela.

*"...Eskualde ezezaguna zeharkatzeko asmoa izanez gero, komeni da bertako ideien araberako lanbide bat hartzea, non eta espioi politikotzat jotzea nahi ez bada, gauza arriskutsua edozein herrialdetan ezbairik gabe. Gerlari ez nekazari ez merkatariarena egiteko aukerarik gabe, Etiopia kristauan neure burua mamhir gisa aurkezten nuen, alegia, jakintsu edo irakasle, eta maiz eskoletan agertzen nintzen; hauek publikoak eta doakoak dira, baina ez derrigorrezkoak. (...)*

*Hain da handia kopisten utzikeria eta maisuen axolagabekeria, ezen Ebanjelioen lau ale ene parean eduki, eta haien arteko aldaerak askoz gehiago baitira Griesbachek edo Tischendorfek sekula grekozko orijinaletan aurkitutakoak baino. Ahalegindu ere ahalegindu nintzen kritika zentzu pittin bat, edo bederen aztertzeko grina gutxieneko bat sarrarazten oraindik orain geratzen diren ikerlari bakanen artean. Baina saio guztiak alferrekoak izan zaizkit. Jakintsu hauek guztiek eta bat bederak, nor bere dotrina propioaz harro-harro inguraturik, hainbat ikasgairen*

fueron los pioneros de los exploradores vascos del siglo XIX.

*"...Cuando se pretende atravesar un país desconocido, es conveniente ejercer una profesión en armonía con las ideas locales, so pena de pasar por un espía político, algo peligroso en cualquier nación. No pudiendo ser ni guerrero ni labrador ni mercader, en la Etiopía cristiana decidí hacerme pasar por mamhir, es decir, profesor o sabio, y frecuentaba las escuelas, que son públicas y gratuitas, pero no obligatorias. (...)*

*La desidia de los copistas y la dejadez de los maestros son tales que tengo cuatro ejemplares de los Evangelios con un número de variantes mayor de los que jamás hayan señalado Griesbach o Tischendorf en el original griego. Intenté en vano insuflar un espíritu de crítica, o al menos de examen, entre los pocos estudiosos que aún existen. Pero todos mis esfuerzos han resultado inútiles. Cada uno de estos sabios, orgullosamente enfundado en su propia doctrina, responde obstinadamente a mis argumentos sobre lo absurdo de diversas lecciones: vuestro libro está equivocado y el mío tiene razón.*

*Del choque de opiniones sale la verdad, dice el adagio*

*absurduaz egiten dizkiedan iruzkinei setaz erantzuten diete: zuen liburua oker dago eta nireak arrazoi du.*

*Iritzien erkatzeari egia dario, dio frantses esaerak; horregatik, hainbat ikerlari (eskuizkribu desberdinen jabe) batzea otu zitzaidan, behintzat haien artean ika-mika hasi eta eztabaidan jarduteko trebezia erakutsiko zidatelako ustean. Ustea ustel, zeren eta, estu-estu sentitu orduko, ez zidaten hauxe besterik erantzuten: gizon zuriak gogor tratatzen ditu Kamen seme gizagaixoak. Berak, Jafeten seme denez, lau begi ditu. Arabiarrek bina begi dituzte, eta gu, etiopiarrok, itsuak gara. Hitz apur hauetan biltzen den etsipena askoz ere sakonagoa da nire lumak filologo europar sutsu bati komunikatzen ahal diona baino...".*

Anton Abbadiak 1844ko irailean idatzitako eskutitzean.

*francés; por ello, se me ocurrió reunir cierto número de estudiosos (con diferentes manuscritos), con la vana esperanza de que al menos se atacarían recíprocamente y así me mostrarían sus habilidades en el ejercicio de la controversia. Pero, cuando se sentían acorralados, se limitaban a responder: el hombre blanco nos trata con dureza a los pobres hijos de Cam. Él es un hijo de Jafet, y, en consecuencia, tiene cuatro ojos. Los árabes tienen dos ojos, y nosotros los etíopes somos ciegos. En estas pocas palabras hay un sentimiento mucho más profundo de desesperanza del que mi pluma pueda comunicar a un ardiente filólogo europeo...".*

Extractos de una carta escrita en septiembre de 1844.

# JOSE MARIA MURGA

Jose Maria Murga y Mugartegui, "el moro vizcaíno" bezala ezagutua, Bilbon jaio zen, 1827ko ekainaren 20an, Bizkaiko jauntxoen familia batean. Militarra lanbidez, zalditeriko komandante izatera iritsi zen. Bidaietarako grina berezia zuen. Turkia eta Errusiaren arteko Krimeako gerran begirale bezala ibilia zen, armada utzi eta 1863an Maroko ezagutzera joatea erabaki zuenean. Hach Mohamed el Bagdadi izena hartu zuen (bere arabieraren ahozkera berezia disimulatzearren Bagdad hiritik zetorrela zioen) eta arabeen modura jantzita, hiru urtez Magrebeko lurraldeak ezagutzeari ekin zion.

Denetarik egin zuen bidaian zehar, merkatari, erromes, ipuin kontalari eta petrikilo ere izan zen. Ofizio desberdin hauen bitartez europar bat sekula sartuko ez zen lekuetan egoteko aukera izan zuen, Fez hiriko mezkitan esaterako, Ipar Afrikako eguneroko bizitza sakonki ezagutuz. Bere amaren heriotzak 1865ean etxeratzera behartu zuen.

Bere esperientziari buruzko liburua Bilbon 1868an argitaratu zuen: *Recuerdos marroquíes del moro vizcaíno*. Umore finez zipriztindutako testu zoragarria, marokoar gizartearen deskribapen sakon eta errespetuz betea eskaintzen du. Haren historia, etnografia eta soziologia-

José María Murga y Mugartegui, más conocido como "el moro vizcaíno", nació en Bilbao el 20 de junio de 1827, en el seno de una familia de notables de Bizkaia. Militar de oficio, llegó a comandante de caballería, aunque su pasión eran los viajes. Tras recorrer Crimea como observador en la guerra entre Rusia y el Imperio Otomano, en 1863 dejó el ejército para marchar a conocer Marruecos. Con el nombre de Hach Mohamed el Bagdadi (decía provenir de Bagdad para disimular su acento al hablar en árabe) y vestido como un árabe más, se dedicó a conocer el Magreb durante tres años. En este tiempo hizo de todo, fue mercader, peregrino, contador de cuentos y curandero. Así logró acceder a lugares vedados a los europeos, como la mezquita de Fez, y en suma, consiguió conocer en profundidad la vida cotidiana en el norte de África. La muerte de su madre en 1865 lo obligó a volver a casa. En 1868 publicó en Bilbao un libro con sus experiencias: *Recuerdos marroquíes del moro vizcaíno*. En él hace una descripción respetuosa y profunda de la sociedad marroquí, con pinceladas de fino humor. Su trabajo es una gran fuente de datos históricos, etnográficos y sociológicos.

Después de ocupar el cargo de Diputado general de Bizkaia en 1870-72, en 1873 se dirigió de nuevo a

ri buruzko datu aberatsez hornitua dago bere lana.
1870-72 urteetan Bizkaiko aldun nagusia izan ostean eta euskaldunen arteko borrokak etsitua, berriro 1873an jo zuen Marokora. Honako honetan bidaia motzagoa izan zen, berriro ere arabiar jantziz ibili bazen ere urte hartan bertan itzuli baitzen Bilbora. Karlistada gori-gori zegoen eta Bilboko defentsan bolondres modura ibili zen liberalekin.
Hirugarren bidaia prestatzen ari zenean, 1876ean hil zen Jose Maria Murga, "Mairu bizkaitarra".

*"...Hizkuntzaz aparte monotonia amorragarria besterik aurkitzen ez nuen herrialdeak zeharkatzeaz asper-asper egina, begiei nabartasun handiago eta arimari sentipen berriak eman nahi nizkien. (...)*

*Nire itxaropenak ez dira zapuztu. Nahi beste eta gehiago ikusi ahal izan dut: eta herri bat aztertu ahal izan dut, gaur egun Europakoen oso bestelakoa izan arren, Erdi Aroaren hasieran eta dezente geroago ere hauengan errotutako ideiak, kezkak eta bai ohitura asko ere dituen herria, hain zuzen.*

*Nire bizitzako egun on batzuk arabiarren artean eman*

Marruecos, donde viajó vestido de árabe. Esta vez el viaje fue más corto, y volvió a Bilbao el mismo año, en plena guerra carlista, en la que participó defendiendo la villa enrolado en los voluntarios liberales.
Cuando estaba preparando su tercer viaje, murió en 1876 José María Murga, "el moro vizcaíno".

*... Cansado y aburrido de recorrer países en los que, exceptuando el lenguaje, no encontraba sino una desesperante monotonía, quise dar mas variedad a mis ojos y nuevas sensaciones a mi alma. (...)*
*Mis esperanzas no han sido defraudadas. He visto todo lo que deseaba y algo mas: y he podido estudiar á un pueblo que, aunque hoy bien diferente de los de Europa, tiene encarnadas las ideas, las preocupaciones y hasta muchas de las costumbres que estos tuvieron al principio de la Edad Media y aún bastante después.*
*Entre los Arabes he pasado algunos de los buenos días de mi vida. Si, por desgracia, las vicisitudes políticas ó los reveses de fortuna me obligasen á buscar un asilo fuera de mi patria, entre ellos se me había de encontrar. Y nada me costaría el adoptar su género de vida, que me es bien conocido; puesto que hoy, con medios de fortuna que me permiten vivir en medio de las comodida-*

*ditut. Zoritxarrez gorabehera politikoek edo halabeharrak deserrian babesleku bat bilatzera bultzatuko banindute, haiengan aurkituko nindukete. Eta ez litzaidake batere kostako haien bizimodura egokitzea, ongi ezagunа baitut; zeren eta gaur, zibilizazioak eskura jarritako erosotasun guztiez inguraturik bizitzeko aukera guztiak ditudalarik ere, maiz jotzen nau bihotzean tristurak, eta Berberiako eremu isilak eta aduarreko esteraren abegi ona faltan sumatzen ditut. (...)*

*Behin, Rabateko kaleetan barrena goiz batean nindoala, arabiar talde bat ika-mika bizian zegoen. Hurbildu orduko, haietako batek sutsuenak zeraman baioneta ingelesa hartu eta niri eman zidan. Hasieran ez nuen ulertu zer esan nahi zuen hark; baina berehala ohartu nintzen halabeharrez arma kortesen torneo baten lekuko izatea egokitua zitzaidala, baioneta eman zidana Heraldoa baitzen, eta ni, berriz, epaile. Ukabilkadak eta buru talkak zaparradaka erortzen ziren. Asko eta asko hurbildu ziren jaialdira, baina inor ez zen ahalegindu borrokalariak banatzen; ni neu ere jakin minez nengoen, eszena nola bukatuko zain. Bata zein bestea ongi zurraturik eta odola franko zeriela, Heraldoa borrokalarien artean paratu zen; hauek eskua elkarri eman eta bakoi-*

*des que trae consigo la civilización, muy á menudo la tristeza se apodera de mi alma y echo de menos los campos silenciosos de Berbería y la estera hospitalaria del aduar." (...)*

*"...Pasaba una mañana por las calles de Rabat, en la que había un grupo de Arabes que disputaban acaloradamente. Al acercarme, uno de ellos se apoderó de una bayoneta inglesa que llevaba el mas alborotado y dirigiéndose á mi, me la entregó. No comprendí, por el pronto, lo que aquello significaba; pero no tardé mucho en hacerme cargo de que la casualidad me había deparado de ser testigo de un torneo con armas corteses, en el que el que me dio la bayoneta era el Heraldo, y en el que yo, sin saber cómo, me encontraba convertido en Juez del campo. Los puñetazos y las cabezadas llovían de lo lindo; muchos se acercaban á ver la fiesta, pero ninguno trataba de separarlos; y, por mi parte, esperaba con curiosidad el fin de aquella escena. Bien zurrados y bien llenos de sangre el uno y el otro, el Heraldo se interpuso entre los combatientes; estos se dieron la mano y cada uno se besó la suya; entregué la bayoneta; el grupo empezó á disolverse, y yo me marché contento de la aventura y de haber podido disfrutar de una*

*tzak bereari muin egin zuten; baioneta itzuli nuen; taldea sakabanatzen hasi zen eta ni ere joan egin nintzen, abenturagatik eta herri honen izaera erakusteko balio izan didaten eszena guztien artean kuriosoenetariko bat ikusia nuelako pozik.*

**José María Murga Mugartegui**
"Recuerdos Marroquíes del Moro Vizcaino"

*de las escenas mas curiosas de entre todas en las que se me ha revelado el carácter del país."*

**José María Murga Mugartegui**
"Recuerdos Marroquíes del Moro Vizcaino"

# MANUEL IRADIER

Manuel Iradier Gasteizen jaioa zen 1854an, eta txiki-txikitatik bidaia eta esplorazioekiko jakinmin izugarria izan zuen. 15 urterekin "La exploradora" elkartea sortarazten du, Ertafrika esploratu eta zibilizatzeko asmoz. Stanley ospetsua Bigarren Karlistadaren berri ematera etorria zen Euskal Herrira, eta bi aholku nagusi eman zizkion: hasteko, espedizio bat antolatzeko bi gauza zirela beharbeharrezkoak: dirua eta dirua. Horretaz gain, esperientzia hartzeko helburu apalago bat aukeratzeko esan zion, Iradierren lehen asmoa amets hutsa baitzen, alegia Afrika osoa zeharkatu, Hegoafrikatik Libiaraino, gutxi gora behera 7.500 km, gehien gehienak gizon zuriaren oinak inoiz zapaldu gabeak.

Diru kontuetan ere, batere laguntzarik jaso ez zuenez, bere sos guztiak xahutu zituen lehen bidaian, 1874an. 1877an Gasteizera itzuli zenean, Afrikan jaiotako alaba Afrikan lurperatua zuen; bera ere bizitza osorako geratu zitzaizkion sukar intermitenteak pairatu zituen. Ez zuen dirurik, ez zuen ongietorririk izan, baina ez zen esku hutsik bueltatu. Ordurarte Ginea inguruan egindako azterketarik sakonena egin zuen. Kosta eta barnealdeko mapa zehatzak egin; intsektu eta landare ezezagunak -europarrentzat, noski- lehen aldiz klasifikatu; haizea, euria, pre-

Manuel Iradier nació en Vitoria en 1854, y desde niño demostró una enorme curiosidad por los viajes y exploraciones. A los 15 años ya fundó la asociación "La exploradora" con el fin de explorar y civilizar África Central. Cuando el célebre Stanley llegó a Vitoria a informar sobre la Segunda Guerra Carlista, le dio dos consejos a Iradier. Primero, que para organizar expediciones se necesitaban dos cosas: dinero y dinero. También le aconsejó que adquiriera experiencia eligiendo al principio objetivos modestos. Así pues, desaconsejó como un sueño prácticamente irrealizable su primera idea de atravesar el continente africano desde Sudáfrica hasta Libia, unos 7.500 kilómetros en su mayoría nunca hollados por pies europeos.

Como no recibió ninguna ayuda económica, agotó todos sus recursos en el primer viaje de 1874, que realizó con su mujer y la hermana de ésta. A su vuelta en 1877 había enterrado a su hija nacida en África; él mismo habría de padecer fiebres intermitentes durante el resto de su vida; le tuvieron que prestar dinero para volver de Madrid a Vitoria, donde nadie le dio la bienvenida. Pero no volvió con las manos vacías. Había realizado la investigación más profunda de Guinea hasta la fecha: mapas detallados

sio atmosferikoa eta hezetasuna neurtzeko laboratorio meteorologikoa eraiki; bertakoen hizkuntzak, tribuen banaketak, erlijioak, musika, ohiturak jaso; prospekzio geologiko-mineroak egin... Madrileko Sociedad Geográficak mapak eta ikerketak argitaratu zizkionean, ospe handia hartu zuen, eta Real Academia de la Historiako kide izendatu zuten.

La exploradora berrantolatu zuenean, honako esaldi hau izango zen ardatza: *El porvenir de España está en Africa y la gloria de Euskaria es que sus hijos la exploren.*

1884an Afrikara itzuli zen, eta 14.000 Km. koadroko eskualdea esploratu. Osasuna zela-eta bueltatu behar izan zuen. Harrez geroztik proiektu desberdinetan ibili zen. Adibidez, inprimategietan erabiltzeko konposiziorako kaxa tipografiko arin bat asmatu zuen, baita ur-kontagailu automatiko bat, edo fototakimetro bat, eta abar. Astronomia ikerketak ere egin zituen, eta bestelako lanbideetan aritu. Iradier ez zen geldi egotekoa. Dena den, bere lanak gehiegi goraipatuak edo erabat ahaztuak izan ziren bizi zen artean.

de la costa y el interior, clasificación por primera vez de plantas e insectos desconocidos (por los europeos, naturalmente); levantamiento de un observatorio meteorológico que medía el viento, la lluvia, la humedad y presión atmosférica; prospecciones minero-geológicas, recogida de datos etnográficos sobre las tribus locales, sus lenguas, costumbres, religiones, música, etc. Cuando la Sociedad Geográfica publicó sus mapas e investigaciones, adquirió notable fama y fue nombrado miembro de la Real Academia de la Historia.

El lema de su reorganizada asociación La exploradora fue el siguiente: *El porvenir de España está en Africa y la gloria de Euskaria es que sus hijos la exploren.*

Volvió a África en 1884 y exploró una región de 14.000 Km. cuadrados. Hubo de volver por problemas de salud, y promovió los más diversos proyectos, como la invención de una ligera caja tipográfica de composición para su uso en imprentas, un contador de agua automático, un fototaquímetro, etc. También hizo observaciones astronómicas y se dedicó a diferentes actividades. Iradier no podía estar inactivo. Sin embargo, su vida transcurrió entre loas excesivas o los más profundos olvidos.

*" Sabelean min latzak sentitu arren, bufalo ehizean ateratzen naiz Ukumbanguba zelaietara; "Idazten duena" esan nahi duen Ilende lur mutur gertuko Belalale zingira istiltsuak pasa eta bi orduren buruan, gu ikusi gabe landarerik gabeko tartea zeharkatzen ari zelarik, tiro egin ahal izan diot zezen eder bati. Animalia zauriturik, gorputza astindu eta nigana dator korrika bizian. Instanterik galdu gabe, zoritxarrez inurriz betetako zuhaitz batera igotzen saiatu naiz. Piztia iritsi orduko 12 bat oin gora nago. Abarrak gorago daude, inurriek hozka egiten didate eta jarrera deserosoa da guztiz. Horrela askorik iraun ezinik, Elombuangani deitu dut, lagun dakidan, zezena sustraietara adarka dagoen bitartean. Tiro hotsa eta bufaloaren marruma indartsua entzun ditut. Nik ezin dut gehiago, eta irristaka ari naiz; animalia saminki inarroska. Beste tiro hots batek salbatu nau, zeren eta gure etsaiak arriskuan dagoela ulertu eta odola dariola alde egin baitu larrean barrena. Neure burua lurrera erortzen utzi eta biluztu behar izan dut. Inurriz mukuru nago. Sabeleko mina handia da eta itzultzea erabaki dut. Nekez nabil. Aintziratik hurbil, argiak begietatik alde egin dit eta korde gabe erori naiz. Neure baitara itzuli orduko gaua da. Nire jendeak ondoan ditut, hizketan eta erretzen. Buruan zingirako buztina jarri didate. Herrira eraman nazaten agindu dut. Inoiz ez bezalako ondo sentitzen dut. Bizia ihesi doakidala*

*"A pesar de sentir violentos dolores de vientre, salgo a cazar búfalos a las praderas Ukumbanguba; paso los pantanos Belalale, de cenagoso fango, poco distante de la punta Ilende, cuyo nombre significa "El que escribe", y al cabo de dos horas puedo hacer fuego sobre un hermoso toro que atravesaba sin vernos un espacio libre de vejetación. El animal, herido, se sacude y se dirige a mí en veloz carrera. No pierdo un instante y trato de subir a un grueso árbol que por desgracia está lleno de hormigas. Cuando llega la fiera estoy a unos doce pies de elevación. Las ramas están más altas. Las hormigas me muerden, y la posición es violenta. Comprendo que no podré estar así mucho tiempo, y llamo a Elombuangani en mi auxilio, mientras el búfalo cornea las raíces de mi refugio. Siento un disparo, el búfalo muge con fuerza. Yo no puedo más, voy resbalando. El animal debe agitarse violentamente. Suena otro disparo, que me salva, porque comprendiendo nuestro enemigo el peligro en que se encuentra, huye a través de la pradera, dejando un rastro de sangre. Me dejo caer al suelo y tengo que desnudarme. Estoy plagado de hormigas. Los dolores de vientre son intensos y determino volver. Apenas puedo andar. Cerca de la laguna huye la luz de mis ojos y caigo sin conocimiento. Cuando vuelvo en mí es de noche. Mis gentes están a mi lado hablando y fumando. Me han puesto en la cabeza lodo de los pantanos. Me hago con-*

*dirudi. Nire familiaren beldurrez, idatzi egiten diot, azken gutuna izango delakoan. Lozorro astunak begiak ixten dizkit. Gorputz erdia hotz daukat. Azken pentsamendua Jainkoagan pausatu dut, etsi-etsian. Gauerdian oka eragile bat hartu ahal izan dut. Ordu batzuk geroago hobeto sentitu naiz.*
*Egun batzuk igarota, eta zeharo sendaturik, Aye ibaian barrena noa, bere planoa marrazteaz gain ea hipopotamoren bat ehizatuko ote dudan"*

**Manuel Iradier y Bulfy**
Viajes y trabajos de la asociación euskara La exploradora. Fragmentos de un diario

*ducir al pueblo. Siento un malestar como nunca he sentido. Parece que se me escapa la vida. Temo por mi familia y le escribo la que yo creo última carta. Cierra mis ojos un profundo sopor. Medio cuerpo tengo frío. Mi último pensamiento lo fijo en Dios con religiosa resignación. A media noche puedo tomar un vomitivo. Horas después me siento mejor.*
*Transcurren unos días, y estando completamente restablecido salgo por el río Aye con el objeto de levantar su plano y ver si cazo algún hipopótamo"*

**Manuel Iradier y Bulfy**
Viajes y trabajos de la asociación euskara La exploradora. Fragmentos de un diario

# BIBLIOGRAFIA / BIBLIOGRAFÍA


- DARBOUX, Gaston. Notice Historique sur Antoine d'Abbadie. Paris: Academie des Sciences, 1907

- Abbadia. Un rébus géant. Hendaye: Fondation Antoine d'Abbadie, 1997.

- SAGARZAZU, Iñigo. Abbadie. Hondarribia: Oyhenia, 1997.

- Antoine d'Abbadie 1897-1997. Congrès International Eusko Ikaskuntza. Hendaye-Sare, 1997.

- MURGA y MUGARTEGUI, José María. Recuerdos marroquíes del Moro Vizcaíno. Markina: Federico Verastegui, 1994.

- El Moro Vizcaíno. Cuna, solar, linajes y vida y aventura del mayorazgo vasco y heroico milite José María de Murga y Mugártegui. Bilbao: Junta de Cultura de Vizcaya, 1969.

- IRADIER y BULFY, Manuel. Viajes y trabajos de la Asociación Euskara La Exploradora. Fragmentos de un diario. Vitoria: Diputación Foral de Alava, 1992.

- MARTINEZ SALAZAR, Ángel. Manuel Iradier. Las azarosas empresas de un explorador de quimeras. Barcelona: Ediciones del Serbal, 1993.

- JIMENEZ FRAILE, RAMÓN. Stanley, corresponsal en España del "New York Herald" (1868-1873): El encuentro con el explorador alavés Manuel Iradier. Vitoria: Diputación Foral de Alava, 1995.


Esploratzaileak XIX. mendean
LE TOUR DU MONDE
Exploradores en el siglo XIX
Z·M
MUSEO-ZUMALAKARREGI-MUSEOA
BK
Bidebarrieta
Kulturgunea
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
BILBOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BILBAO



Z·M

MUSEO-ZUMALAKARREGI-MUSEOA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

B·K Bidebarrieta Kulturgunea

BILBOko UDALA
AYUNTAMIENTO DE BILBAO

Kultura eta Turismo Saila · Área de Cultura y Turismo